DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Esp: 123/2024

DORLETA ELKOROBARRUTIA PAGOAGA (1, guztira 1)
Lehendakaria
Sinaduraren data: 19/06/2024
HASH: d7bffa837a48948aeb1920d9c3719303

## LEHENDAKARITZA EBAZPENA

Dorleta Elkorobarrutia Pagoaga, Debagoieneko Mankomunitateko Lehendakariak, apirilaren 7ko Toki Erakundeetako 2/2016 Legearen 25.7 artikuluk eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera

## IKUSIRIK

Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, **kontsulta publiko bat** bideratuko da administrazio eskudunaren web-atariaren bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta erakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:

a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
c) Arauaren helburuak.
d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Ekimenaren testua idatzi aurreko kontsultaren kalterik gabe, arauak pertsonen eskubide eta interes legitimoei eragiten dienean, zuzendaritza zentro eskudunak dagokion **webgunean argitaratuko du testua, eraginpeko herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona eta erakunde batzuek egin ditzaketen ekarpen gehigarriak jasotzeko.** Era berean, zuzenean **eska dakieke iritzia arauaren eraginez beren eskubide edo interes legitimoak ukitzen zaizkien pertsonak biltzen edo ordezkatzen dituzten** eta beren helburuak arauaren objektuarekin zerikusi zuzena duten **erakunde edo elkarte legez onartuei**.

## RESOLUCION DE PRESIDENCIA

Dorleta Elkorobarrutia Pagoaga, Presidenta de Debagoieneko Mankomunitatea de conformidad con lo previsto en el artículo 25.7 de la Ley 2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi y en el artículo 21.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de la Bases del Régimen Local,

## VISTO

Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se debe sustanciar **una consulta pública**, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:

a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.
b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.
c) Los objetivos de la norma.
d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Cuando la norma afecte a los derechos e intereses legítimos de las personas, **se debe publicar el texto en el portal web correspondiente, con el objeto de dar audiencia a los ciudadanos afectados y recabar cuantas aportaciones adicionales puedan hacerse por otras personas o entidades**. Asimismo, podrá también recabarse directamente **la opinión de las organizaciones o asociaciones reconocidas por ley que agrupen o representen a las personas cuyos derechos o intereses legítimos se vieren afectados por la norma** y cuyos fines guarden relación directa con su objeto.



Baliozkotze Kod.: 69XF59ZGZSEFYMSY3LDMEKQ23
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 12

**AINTZAT HARTURIK**

Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluak (parte hartzeko eskubideari buruzkoa) eta 83. artikuluak (supletorioki ezargarri den hogei lan eguneko epea arautzen duena).

**CONSIDERANDO**

Lo dispuesto en el artículo 133 (derecho de participación) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y en el artículo 83 (establece plazo de veinte días hábiles con carácter supletorio).

**EBAZTEN DUT:**

**BAKARRA.**
Debagoieneko Mankomunitateko **Zergak Eta Zuzenbide Publikoaren Bestalako Sarrerak Kudeatzeko, Biltzeko Eta Ikuskatzeko Ordenantza Orokorra** dela eta, kontsulta publikoa bideratzea.

**RESUELVO:**

**UNICO.**
Someter a consulta pública y audiencia pública **Ordenanza General de Gestión Recaudación e Inspección de los Tributos y Otros Ingresos de Derecho Público de la Mancomunidad de Debagoiena**.

**Kontsulta publikoaren epea hamar egun baliodunekoa izango da. Epe horretan, interesdunek beren iritziak eta ekarpenak aurkeztu ahal izango dituzte** Debagoieneko Mankomunitateko erregistro elektronikoan bai modu elektronikoan (www.debagoiena.eus) bai aurrez aurre (azken hau, 09:00etatik 14:30era bitarteko ordutegian).

**El plazo de consulta pública será de diez días hábiles, durante el cual los/as interesados/as podrán presentar sus opiniones y aportaciones** en el registro electrónico de Debagoieneko Mankomunitatea de forma electrónica (sede electrónica www.debagoiena.eus) o presencial (ésta última en horario de 09:00 a 14:30 horas).

Kontsulta eta entzunaldia 2024ko ekainaren 17tik 2024ko uztailaren 2 arte egongo dira zabalik.

La consulta y audiencia estarán abierta desde el día 17 de junio de 2024 hasta el 2 de julio de 2024.

Baliozkotze Kod.: 69XF59ZGZSEFYMSY3LDMEKQ23
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 12

## ZERGAK ETA ZUZENBIDE PUBLIKOAREN BESTALAKO SARRERAK KUDEATZEKO, BILTZEKO ETA IKUSKATZEKO ORDENANTZA OROKORRA

**1. Artikulua. Helburua**
Ordenantzaren xedea Toki-Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 106.2 artikuluan eta Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauan aitortutako erregelamendu-ahalmenaz baliatzea da, eta, ondorioz, Mankomunitateak zehaztu edo garatu beharreko gaiak erregulatzea.

**2. Artikulua. Lege araubidea**
Zerga kredituen eta zuzenbide publikoko gainerako tokiko sarrerak biltzeko kudeaketa ondorengo xedapen hauek arautuko dute:

1. Debagoieneko Mankomunitateko zerga bilketarako udal ordenantza hau.
2. Zerga Foru Arau Orokorra, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua.
3. Gipuzkoako Lurraldeko Zerga Bilketako Erregelamendua, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretua.
4. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua, azaroaren 16ko 31/2010 Foru Dekretua.
5. Zerga urraketen eta zigorren araubidea garatzeko Erregelamendua, irailaren 26ko 42/2006 Foru Dekretua.

**3. Artikulua. Organoak eta eskumenak**
Zerga bilketaren kudeaketa ondorengo organoei dagokie:

1. Lehendakaria :
   - Likidazioak onartzea eta indargabetzea
   - Zerga Errolda, likidazio eta borondatezko epeko ordainagirien aurkako berraztertze errekurtsoen gaineko erabakiak hartzea.
   - Okerreko sarrerak itzultzeko eskaerak ebaztea.
   - Konpentsazioak ebaztea.
   - Erakunde publikoen kredituak ofizioz konpentsatzea
   - Kobratu ezin diren kredituak deklaratzea
   - Aldizkako zergak kobratzeko iragarkiak argitaratzea
   - Exekuzio prozedura eteteko eskaerak ebaztea
   - Enbargatutako ondasunen besterentzea baimentzea
   - Legez beste organoei esleitu ez zaizkien eginkizun guztiak egikaritzea
   - Atzeratze edo zatikatze eskaerak ebaztea.
   - Premiamendu probidentziak ematea

## ORDENANZA GENERAL DE GESTIÓN RECAUDACIÓN E INSPECCIÓN DE LOS TRIBUTOS Y OTROS INGRESOS DE DERECHO PÚBLICO DE LA MANCOMUNIDAD DE DEBAGOIENA

**Articulo 1. Objeto**
El objeto de la Ordenanza es ejercer la potestad reglamentaria reconocida en el art. 106.2 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local, Ley 7/1985, de 2 de abril, y en la Norma Foral General Tributaria, N.F. 2/2005, de 8 de marzo, regulando las materias que precisan de concreción o desarrollo por parte de la Mancomunidad.

**Articulo 2. Regimen legal**
La gestión recaudatoria de los créditos tributarios y demás ingresos de derecho público locales se regirá por:

1. La presente Ordenanza de Recaudación de la Mancomunidad de Debagoiena
2. La Norma Foral General Tributaria, Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo.
3. El Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto.
4. El Reglamento de Inspección Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, Decreto Foral 31/2010, de 16 de noviembre.
5. El Reglamento del régimen de infracciones y sanciones tributarias, Decreto Foral 42/2006, de 26 de septiembre.

**Articulo 3. Organos y Competencias**
La gestión recaudatoria corresponde y se realiza por los siguientes órganos:

1. El Presidente:
   - Aprobar y anular liquidaciones
   - Resolver los recursos de reposición contra los Padrones Fiscales, liquidaciones y recibos en periodo voluntario.
   - Resolver las solicitudes de devolución de ingresos indebidos.
   - Resolver las compensaciones.
   - Compensar de oficio los créditos de las Entidades Públicas
   - Declarar los créditos incobrables
   - Publicar los anuncios de cobranza de los tributos periódicos
   - Resolver las solicitudes de suspensión del procedimiento ejecutivo.
   - Autorizar la enajenación de bienes embargados.
   - El ejercicio de todas las funciones no atribuidas legalmente a otros órganos.
   - Resolver las solicitudes de aplazamiento o fraccionamiento.
   - Dictar las providencias de apremio



Baliozkotze Kod.: 69XF59ZGZSEFYMSY3LDMEKQ23
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 12

- Berraztertzeko helegiteak ebaztea exekuzio aldian
- Enbargatzeko probidentziak ematea eta bahitutako ondasunak saltzeko probidentziak ematea
- Zerga eta zergaz kanpoko zorren erantzukizun eratorpenak ematea
- Onura fiskalak aitortzeko eskaerak ebaztea

2. Lehendakariordeak Lehendakariak eskuordetutako funtzioak betetzen ditu.

3. Gobernu Junta:
   - Onura fiskalak aitortzeko eskaerak ebaztea.
   - Atzeratze edo zatikatze eskaerak ebaztea.

- Resolver los recursos de reposición en periodo ejecutivo.
- Dictar las providencias de embargo y las de venta de los bienes embargados..
- Dictar las derivaciones de responsabilidad de deudas tributarias y no tributarias.
- Resolver las solicitudes de reconocimiento de beneficios fiscales.

2. El Vicepresidente ejerce las funciones delgadas por el Presidente.

3. La Junta de Gobierno:
   - Resolver las solicitudes de reconocimiento de beneficios fiscales.
   - Resolver las solicitudes de aplazamiento o fraccionamiento.

**4. Artikulua. Zerga erroldak**

1. Erregistroetan altarik eragiten ez duten kuotak eta gainerako zergak, subjektu pasiboari banaka jakinarazitako egitate zergagarriei dagozkienak, era kolektiboan jakinaraziko dira, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 98.3 artikuluak aurreikusitakoaren arabera.

**Articulo 4. Padrones fiscales**

1. Las cuotas y demás elementos tributarios en cuanto no constituyen altas en los respectivos registros, sino que hacen referencia a un hecho imponible ya notificado individualmente al sujeto pasivo, serán notificados colectivamente, al amparo de lo que prevé el art. 98.3 de la Norma foral General Tributaria.

**5. Artikulua. Zerga egutegia**

1. Modu kolektiboan jakinarazten diren eta aldizkako mugaeguna duten tributuak borondatez ordaintzeko epean 1. ERANSKINean daude jasota.
2. Epeak adierazitako egunean amaituko dira, eta egun hori larunbata edo jai eguna bada, ondorengo lehen lanegunean.
3. Lehendakariak egutegi fiskala argitaratzeko agindua iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko ediktu taulan jarriz emango du. Iragarki hau, kobrantza iragarkiaren baliokidea izango da.

**Articulo 5. Calendario fiscal**

1. Los periodos de pago voluntario de los tributos de vencimiento periódico y notificación colectiva quedan fijados en el ANEXO I.
2. Los periodos finalizarán en el día señalado, o siendo éste sábado o inhábil, el inmediato hábil posterior.
3. El Presidente ordenará la publicación del calendario fiscal mediante anuncio en el Boletín Oficial de la Provincia y en el tablón de edictos de la Mancomunidad que servirá a modo de anuncio de cobranza.

**6. Artikulua. Zergak biltzeko sistema**

Udal zergak eta zuzenbide publikoko sarrerak biltzeko, horrela egingo da:

1. Modu kolektiboan jakinarazten diren eta aldizkako mugaeguna duten tributuen ordainagiriak.
   a) Borondatezko epean, Udalak baimendutako erakunde laguntzaileen bitartez.
      Ordainagiri helbideratua interesatuak adierazitako kontuan kargatuko da.
      Helbideratu gabeko ordainagiria zordunaren helbide fiskalera igorriko da, edozein erakunde laguntzaileetan aurkez eta ordain dezan.
      Zordunak agiri hori ez badu, kontu-hartzailetza bulegoan eskatu beharko du, borondatezko epearen barruan.
   b) Exekuzio aldian, dagokion jakinarazpenean ordainketa non egin, nola egin eta zein epetan egin zehaztutakoaren arabera.

**Articulo 6. Sistema de Recaudacion**

La recaudación de los tributos e ingresos de derecho público municipales se realizará:

1. Los recibos tributarios de vencimiento periódico y notificación colectiva.
   a) En periodo voluntario, a través de las Entidades Colaboradoras autorizadas por la Mancomunidad.
      El recibo domiciliado será cargado en la cuenta facilitada por el interesado.
      El recibo no domiciliado será enviado al domicilio fiscal del deudor, para su presentación y pago en cualquiera de las Entidades Colaboradoras. Si no se dispusiese del referido documento, el deudor lo solicitará en la Oficina de Intervención, dentro del periodo voluntario.
   b) En periodo ejecutivo, según especificaciones de lugar, forma y plazo para efectuar el pago que se indiquen en la



Baliozkotze Kod.: 69XF59ZGZSEFYMSY3LDMEKQ23
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 12

notificación correspondiente.

2. Tributuen likidazioak.
   a) Borondatezko epearen barruan, Udalak baimendutako erakunde laguntzaileen bitartez.
   b) Exekuzio aldian, dagokion jakinarazpenean ordainketa non egin, nola egin eta zein epetan egin zehaztutakoaren arabera.

3. Autolikidazioa.
   Era berean, zerga-kontzeptu jakin batzuen eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuen kudeaketarako autolikidazioa edo/eta deklarazio-likidazioa ezar daiteke.

4. Tritutarioak ez diren zuzenbide publikoko bestelako kredituak:

   Adibide gisa, honako hauek aipatzen dira: hirigintza-jarduketengatiko diru-sarrerak, kautelazko ordainarazpenak, betearazpen subsidiarioak, itzulketak dirulaguntzak emateagatik edo beste edozein ordainketa motagatik bidegabeki jasotako zenbatekoak, prezio publikoak, emandako mailegu edo aurrerakinen itzulketak, administrazio-kontratuetatik eratorritako erantzukizunak, Mankomunitatearen ondasunetan izandako kalteengatiko erantzukizunak, eskumena esleitzen dion legerian edo araudian xedatutakoa urratzeagatik ezarritako zehapenak eta isunak.

   Dagokion jakinarazpenean adierazten diren ordaintzeko lekuaren, moduaren eta epearen zehaztapenen arabera bilduko dira.

2. Liquidaciones de los tributos.
   a) En periodo voluntario, a través de las Entidades Colaboradoras autorizadas por la Mancomunidad.
   b) En periodo ejecutivo, según especificaciones de lugar, forma y plazo para efectuar el pago que se indiquen en la notificación correspondiente.

3. Autoliquidación.
   Podrá asimismo, establecerse la autoliquidación y/o la declaración-liquidación para la gestión de determinados conceptos tributarios y otros ingresos de derecho público.

4. Otros créditos de derecho público no tritutarios:

   A título meramente indicativo se citan los siguientes: los ingresos por actuaciones urbanísticas, exacciones cautelares, ejecuciones subsidiarias, reintegros de cantidades indebidamente percibidas por otorgamiento de subvenciones o por cualquier otro tipo de pagos, los precios públicos, reembolsos de préstamos o anticipos concedidos, responsabilidades derivadas de contratos administrativos, responsabilidades por daños en bienes de la Mancomunidad, sanciones y multas impuestas por infracciones de lo dispuesto en la legislación u normativa que le atribuya su competencia.

   Su recaudación se realizará según especificaciones de lugar, forma y plazo para efectuar el pago que se indiquen en la notificación correspondiente.

**7. artikulua. Zerga-bilketako espezialitateak**

Kudeaketa-arrazoiengatik eta erabiltzaileei zerbitzu hobea eskaintzeagatik, hainbat diru-sarreraren zati bat modu espezializatuan bilduko da, sail kudeatzaileen bitartez.

Sail kudeatzaileek lortutako funtsak kontuetara eramango dira, Diruzaintzak zehaztutako kudeaketa onaren irizpideekin bateragarriak diren modu eta epeetan.

Diru-sarrerak kudeatzen dituzten udal-sailak honako hauek dira:

a) Turismo Sailak Arantzazuko txarteldegian: Arantzazuko eta Debagoieneko bisita gidatuengatiko tasak. Legezko erabilerako dirutan edo kreditu-txartelaren bidez

b) Ingurumen Sailak: Edukiontzietan galdutako objektuak bilatzeko zerbitzuagatiko tasak eta materialen salmentagatiko prezio

**Artículo 7. Especialidades en recaudación**

Por razones de gestión y mejor prestación de servicio a los usuarios, parte de diversos ingresos serán recaudados de forma especializada, a través de los propios departamentos gestores.

Los fondos obtenidos por los diferentes departamentos gestores serán trasladados a cuentas y en la forma y plazos compatibles con criterios de buena gestión que se determinen por la Tesorería.

Los departamentos municipales gestores de los ingresos que se especifican son los siguientes:

a) Departamento Turismo en taquilla Aranzazu: Tasas por visitas guiadas en Aranzazu y Debagoiena: en dinero de curso legal, tarjeta de crédito o abono en cuenta bancaria autorizada.

b) Departamento Medioambiente: Tasas por la prestación del servicio de búsqueda de objetos perdidos en contenedores y precios



Baliozkotze Kod.: 69XF59ZGZSEFYMSY3LDMEKQ23
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 12

publikoak:

- Mankomunitatearen leihatilan: legezko dirutan, kreditu-txartelean edo baimendutako banku-kontuan abonatuta.
- eta Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako arreta bulegoetan: legezko erabilerako dirutan

**8. Artikulua. Helbidea**

1. Zergak biltzeko prozedurari dagokionez, helbidea ondorengo hau izango da:
   a) Pertsona naturalen kasuan, beren ohiko egoitza.
   b) Pertsona juridikoen kasuan, helbide soziala.
2. Zergadunak beste helbide bat hauta dezake (berea edo bere ordezkariarena), jakinarazpenak bertan jasotzeko.
3. Mankomunitateko tributuen subjektu pasibo batek helbidea aldatzen duenean, zerga administrazioari jakinarazi beharko dio, adierazpen espres baten bidez. Helbide aldaketak ez du Mankomunitatearen aurrean efekturik izango, aipaturiko zerga adierazpena aurkezten ez duen bitartean.
4. Subjektu pasiboak ez dionean zerga administrazioari helbide fiskala aldatu duela aurreko pasartean xedatutako moduan jakinarazi, zerga izaera duen edonolako dokumentutan hark aitortutako edo adierazitako azken helbide fiskala hartuko da kontuan eragin guztietarako, baita jakinarazpenak egiteko ere.
5. Subjektu pasiboak ez badu bere helbide fiskala adierazi, titular gisa duen edozer higiezin edo ustiategi ekonomikoren kokagunekoa hartuko da halakotzat bitartean.
6. Udalak, egiaztapenak eginez, zergadunen helbide fiskala egiaztatu ahal izango du.

**9. Artikulua. Onura fiskalak eskatzea**

Zerga bakoitzaren berariazko arautegiaren arabera erabakiko da zergak salbuestea, murriztea eta hobariak ematea edo ez, eta ezin izango da analogiarik erabili salbuespen edo hobarien esparrua zabaltzeko.

Aurkakoa xedatzen duen lege aurreikuspenik egon ezean, aurrez eskatu ondoren emango dira onura fiskalak; onura horiek lortzeko, beraz, eskaria egin beharko da, eta kasu bakoitzerako eskatzen diren agiriak aurkeztu.

Onura fiskalak onartzeak ez du, oro har, atzera-eraginik izango; beraz, onura fiskala eskatzen deneko dataren ondoren, zerga lehen aldiz sortzen den unean jarriko dira indarrean onuraren eraginak.

públicos por venta de materiales:

- en ventanilla Mancomunidad: en dinero curso legal, tarjeta de crédito o abono en cuenta bancaria autorizada.
- y oficinas de atención al público de los municipios mancomunados: en dinero de curso legal

**Articulo 8. Domicilio**

1. El domicilio a efectos del procedimiento recaudatorio será el siguiente:
   a) Para las personas naturales, el de su residencia habitual.
   b) Para las personas jurídicas, el de su domicilio social.
2. El contribuyente puede designar otro domicilio propio o de su representante, con el fin de recibir en el mismo las notificaciones.
3. Cuando un sujeto pasivo de los tributos de la Mancomunidad cambie su domicilio, deberá ponerlo en conocimiento de la Administración Tributaria, mediante declaración expresa a tal efecto, sin que el cambio de domicilio produzca efectos frente a la Mancomunidad hasta tanto no se presente la citada declaración tributaria.
4. Cuando el sujeto pasivo no haya comunicado a la Administración tributaria conforme a lo prevenido en el apartado anterior, el cambio de su domicilio fiscal, se estimará subsistente a todos los efectos, incluso al de notificaciones, el último declarado o el consignado por el mismo en cualquier documento de naturaleza tributaria.
5. En el caso de que el sujeto pasivo no hubiera declarado su domicilio fiscal, se considerará como tal, entretanto, el de situación de cualquier inmueble o explotación económica del que figure como titular.
6. El Ayuntamiento podrá verificar el domicilio fiscal de los obligados tributarios mediante la comprobación pertinente.

**Articulo 9. Solicitud de beneficios fiscales**

La concesión o denegación de exenciones, reducciones y bonificaciones se ajustará a la normativa específica de cada tributo, sin que en ningún caso pueda admitirse la analogía para extender más allá de sus términos estrictos el ámbito de las exenciones o bonificaciones.

Salvo previsión legal expresa en contra, la concesión de beneficios fiscales tiene carácter rogado, por lo que los mismos deberán ser solicitados, acompañándose de la fundamentación exigida en cada caso.

Con carácter general, la concesión de beneficios fiscales no tendrá carácter retroactivo, por lo que sus efectos comenzarán a operar desde el momento en que por primera vez tenga lugar el devengo del tributo con posterioridad a la fecha de solicitud del beneficio fiscal.



Baliozkotze Kod.: 69XF59ZGZSEFYMSY3LDMEKQ23
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 12

**10. Artikulua. Ordainketa eta atzeratzea eta zatikatzea**

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Bilketari buruzko Erregelamenduko 37.3 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, ordainketa atzeratzeko eta zatikatzeko eskariak Debagoieneko Mankomunitateak Ordenantza honetan onartutako xedapenen arabera izapidetuko eta ebatziko dira. Halakorik ez balego, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Bilketari buruzko Erregelamenduan xedatua aplikatuko da.

2. Ordaintzeko obligazioa duenaren egoera ekonomikoa dela-eta egingo da ordainketa atzeratzeko edo zatikatzeko eskaera, ordainketa dagokion unean egiteko ezintasunagatik.

3. Ordaintzeko obligazioa duenak egin beharko du atzeratzeko edo zatikatzeko eskaria, Kontuhartzailetza bulegoan, eta bere egoera ekonomikoa islatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Eskaerak ondoko datu eta agiri hauek izan beharko ditu:

   a) Izen-abizenak, enpresaren izena, NAN edo IFZ zenbakia eta helbide fiskala.

   b) Zorraren kontzeptua, urtea eta zenbatekoa adierazita.
   c) Atzeratzeko edo zatikatzeko epeak.
   d) Eskaera funtsatzen duten arrazoiak.
   e) SEPA agiria, beteta, geroratu beharreko zorraren ordainketa nahitaez helbideratzeko izendatutako banku-kontuaren zenbakia adierazita, Ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera. Kontuaren titularra bat etorri beharko da ordaintzera behartuta dagoenarekin; bestela, helbideratze-kontuaren titularraren berariazko baimena aurkeztu beharko da.
   f) Eskatutako aurrerakina ordaindu izanaren egiaztagiria.
   g) Bermea formalizatzeko konpromisoa, Diruzaintzak markatutako baldintzetan, moduan eta zenbatekoan.

4. Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du.

5. Epemugak, helbideratzea eta aldizkakotasuna.
   Ordainketen epemuga, oro har, hilabete bakoitzaren 10ean eta 25ean edo hurrengo egun baliodunean ezartzen da.
   Geroratu/zatikatu beharreko zorraren ordainketa helbideratzea nahitaezkoa izango da.
   Zatikapenetan, epeak hilero ordainduko dira.

**Articulo 10. Aplazamientos y fraccionamientos de pago**

1. De acuerdo con lo previsto en el artículo 37.3 del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, la tramitación y resolución de las solicitudes de aplazamiento y fraccionamiento de pago se realizará de acuerdo con las disposiciones aprobadas por la Mancomunidad de Debagoiena en esta Ordenanza. En su defecto, la regulación establecida en el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa les será de aplicación de forma subsidiaria.

2. El aplazamiento o fraccionamiento se solicitará por la imposibilidad económica de realizar el pago en el momento actual debido a la situación de tesorería del obligado al pago.

3. La solicitud de aplazamiento o fraccionamiento debe de formularlo el obligado al pago en la Oficina de Intervención, aportando en su caso los documentos necesarios para apreciar la situación económica. La solicitud contendrá necesariamente los siguientes datos y documentos:
   a) Identificación con el nombre y apellidos, razón social o denominación, DNI o NIF y domicilio fiscal.
   b) Concepto de la deuda con indicación del año y su importe.
   c) Plazos del aplazamiento o fraccionamiento
   d) Causas que motivan la solicitud.
   e) Documento SEPA rellenado indicando el número de cuenta bancaria designada a efectos de llevar a cabo la obligatoria domiciliación del pago de la deuda a aplazar de acuerdo con lo previsto en esta Ordenanza, debiendo coincidir el titular de la cuenta con el obligado al pago, en caso contrario, se deberá presentar autorización expresa del titular de la cuenta de domiciliación.
   f) Justificante de ingreso del anticipo requerido.
   g) Compromiso de formalizar la garantía en los supuestos, en la forma y cuantía que la Tesorería señale.

4. El aplazamiento o fraccionamiento devengará el interés de demora vigente.

5. Vencimientos , domiciliación y periodicidad.
   El vencimiento de los pagos se fija, con criterio general, en los días 10 y 25 de cada mes o día hábil siguiente.
   Será obligatoria la domiciliación del pago de la deuda a aplazar/fraccionar.
   En los fraccionamientos la periodicidad de



Baliozkotze Kod.: 69XF59ZGZSEFYMSY3LDMEKQ23
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 12

pago de los plazos será mensual.

6. Bermeak eta irizpideak.
   Gehieneko atzeratze edo zatikatze epeak, bermeak eta egin beharreko aurrerapenak 2. ERANSKINean daude jasota.
   3.000,00 € arteko atzeratze edo zatikapen eskaerak Lehendakaritzak ebatziko ditu. Kopuru horretatik gorako eskaerak Gobernu Juntak ebatziko ditu.

7. Aurreko apartatuetan xedatutakoa hala izanik ere, **Gobernu Juntak**, edozein izaeretako zerga zorren ordainketa zatikatu edo geroratzeko II. ERANSKINean finkatutako irizpideetatik desberdinak diren beste batzuk erabil daitezela erabaki ahal izango du, aparteko zirkunstantziak daudenean edo interes publikoak hala agintzen duenean.

8. Ordainketarik ez badago, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketaren Erregelamenduko (abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretua) 46. artikuluak xedatutako prozedura aplikatu da. Horretaz gain, eperen bat ordaintzeko epemuga iristen bada eta ordainketarik egin ez bada, hori nahikoa arrazoi izango da horren ondoren eskatutako atzerapen edo zatikatze bat emateari ezezkoa emateko.

**11. Artikulua. Okerreko sarrerak itzultzea**

1. Okerreko sarrerak itzultzeko eskubidea aitortzeko prozedurak ofizioz edota interesatuak eskatuta bultzatu eta izapidetuko dira.

2. Behin itzulketarako eskubidea egiaztatu denean, Mankomunitateak banku transferentziaren bitartez ordainduko dio eskubidearen titularrari dagokion zenbatekoa.

**12. Artikulua. Itzulketak**
Mankomunitateak zergadunarengan eragina izan dezakeen gasturen bat egiten badu edota okerreko ordainketaren bat eginez gero, kontu-hartzailetzak egoera horren berri izan bezain azkar, zenbatekoa itzul dezan eskatuko dio hartzaileari, adieraziko dizkion baldintzetan. Hartzaileak betebehar hori betetzen ez badu, premiamendu bidez eskatuko dio itzulketa.

**13. Artikulua. Exekuzio subsidiarioak**
Dagokion espedientea izapidetu ondoren, eta kasu bakoitzari aplika dakiokeen araudiari jarraiki, zergadunari kobratuko zaizkio bai bere jarduera ezagatik burutu beharreko exekuzio subsidiarioen zenbatekoa eta bai, kasuaren arabera, Mankomunitateko ondasunetan eragindako kalteak konpontzeko lanen kostu osoa.

6. Garantías y criterios de concesión.
   Los plazos máximos de aplazamiento o fraccionamiento, las garantías y el anticipo a aportar quedan fijados en el ANEXO 2.
   Los aplazamientos o fraccionamientos hasta 3.000,00 € serán resueltos por la Presidencia. Las solicitudes de importes superiores serán resueltos por la Junta de Gobierno.

7. No obstante lo dispuesto en los apartados anteriores, la **Junta de Gobierno** podrá acordar la utilización de criterios diferentes a los fijados en el ANEXO II para los aplazamientos o fraccionamientos de las deudas tributarias de cualquier naturaleza, en aquellos supuestos en que concurran circunstancias excepcionales o razones de interés público.

8. En caso de falta de pago se aplicará el procedimiento establecido en el Artículo 46 del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto. Además de ésto, el incumplimiento de pago llegado el vencimiento de algún plazo será motivo suficiente para denegar la concesión de un aplazamiento o fraccionamiento solicitado con posterioridad.

**Articulo 11. Devoluciones de ingresos indebidos**

1. Los procedimientos para el reconocimiento del derecho a las devoluciones de ingresos indebidos se impulsarán y tramitarán de oficio o a solicitud del interesado.
2. Una vez constatado el derecho a la devolución, la Mancomunidad abonará el importe correspondiente al titular del derecho mediante transferencia bancaria.

**Articulo 12. Reintegros**
Cuando la Mancomunidad realice un gasto repercutible al contribuyente, o en el supuesto de realización de un pago indebido, tan pronto como sea conocida tal situación por la Intervención, se requerirá al preceptor para que reintegre su importe en el término que se señale. Si se incumpliese esta obligación, el reintegro se exigirá en vía de apremio.

**Articulo 13. Ejecuciones subsidiarias**
Una vez tramitado el correspondiente expediente contradictorio, con arreglo a la normativa aplicable a cada supuesto, se repercutirá al contribuyente tanto el importe de las ejecuciones subsidiarias que deban llevarse a cabo por su inactividad, como el coste total de las obras de reparación por los desperfectos ocasionados en bienes de la Mancomunidad, según el caso.



Baliozkotze Kod.: 69XF59ZGZSEFYMSY3LDMEKQ23
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 12

**14. Artikulua. Kobraezinak**

1. Zergak biltzeko prozeduran kobratu ezin diren kredituak dira kobraezin deituak, ordaintzeko obligazioa dutenei, eta gainerako erantzuleei, egonez gero, ezinezkoa delako kobratzea.
2. Diruzaintzak egingo du kobraezinen proposamena. Hori baino lehen, premiamendu prozedurako jardueren bidez, zordun nagusien eta erantzule solidarioen kaudimen eza frogatu beharko du, bai eta, bere kasuan, egonleku ezezaguna dutela ere, espedientean jasotako dokumentazioaren arabera.
   Enbarga edo diru bihur daitekeen ondasunik edo eskubiderik ez duten zordunak kaudimengabetzat joko dira. Enbargotik libre dauden ondasuntzat hartuko dira Zerga-bilketa Zerbitzuko buruaren iritzian, diru bihurtuta ere, diru bihurtze horren kostua estaltzeko nahikoa emango ez luketen haiek. Horri dagokionez, zerga-biltzaileak erabakiko du enbargatutako ondasuna diru bihurtzearen gutxieneko kostua zein den.
3. Diruzaintzak proposatuta, Lehendakariak formulatuko du kreditu kobraezinen adierazpena, ordaintzeko obligazioa dutenek huts egin dutelako.
4. Ordaintzeko obligazioa zutenak hutseginak deklaratu ondoren, behin behingoz iraungita deklaratuko dira zorrak, betiere preskripzio epearen barruan birgaitzen ez badira. Zorra behin betiko iraungita geratuko da epe horretan birgaitu ez baldin bada.
5. Zorduna kobraezina deklaratu denean, berorren aurka dauden eta geroagoko mugaeguna duten kredituei baja emango zaie, esandako deklarazioa dela medio, betiere beste obligatu edo erantzule batzuk ez badaude.
6. Diruzaintzak jakiten badu zordunak, gerora, kaudimena duela, kreditua birgaitzea proposatuko du.

**Articulo 14. Fallidos**

1. Son créditos incobrables aquellos que no pueden hacerse efectivos en el procedimiento de gestión recaudatoria por resultar fallidos los obligados al pago y los demás responsables, si los hubiere.
2. Tesorería, demostrada la insolvencia y, en su caso, paradero desconocido de los deudores principales y responsables solidarios, a través de las actuaciones del procedimiento de apremio, y conforme a la documentación obrante en el expediente, realizará la propuesta de fallido de los mismos.
   Se considerarán insolventes aquellos deudores respecto de los cuales se ignore la existencia de bienes o derechos embargables o realizables. Se considerarán bienes libres de embargos aquellos de cuya realización se presuma, a juicio del Jefe del Servicio de Recaudación, que resulte producto insuficiente para la cobertura del coste de dicha realización. A tal efecto el Recaudador establecerá cual es el coste mínimo de realización de un bien embargado.
3. A propuesta de Tesorería, el Presidente formulará la declaración de créditos incobrables por resultar fallidos los obligados al pago.
4. Declarados fallidos los obligados al pago, se declararán provisionalmente extinguidas las deudas, en tanto no se rehabiliten dentro del plazo de prescripción. La deuda quedará definitivamente extinguida si no se hubiera rehabilitado en aquel plazo.
5. Declarado fallido un deudor, los créditos contra el mismo de vencimiento posterior serán dados de baja por referencia a dicha declaración, si no existen otros obligados o responsables.
6. Si la Tesorería conociera de la solvencia sobrevenida del deudor, propondrá la rehabilitación del crédito.

**15. Artikulua. Premiamendu prozedura**

Premiamendu prozedura bateko alderdia den zergadunak noiznahi jakin ahal izango du prozeduraren izapidetza zein egoeratan dagoen. Era berean, espedientean jasorik dauden dokumentuen kopia eskuratu ahal izango du, berak ordainduta, betiere hirugarrenen interesei dagozkienak edo beste pertsona batzuen intimitateari buruzkoak ez badira, edota legeak eragozten ez badu.

**Articulo 15. Procedimiento de apremio**

El contribuyente que sea parte en un procedimiento de apremio podrá conocer, en cualquier momento de su desarrollo, el estado de la tramitación del procedimiento. Asimismo, podrá obtener, a su costa, copia de los documentos que figuren en el expediente, salvo que afecten a intereses de terceros o a la intimidad de otras personas o que así lo disponga una ley.

**16. Artikulua. Ikuskatze prozedura**

Zerga-ikuskapena, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 FORU ARAUAn eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-Ikuskapenaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 16ko 31/2010 Foru

**Articulo 16. Procedimiento de Inspeccion**

La Inspección tributaria se desarrollará de conformidad con lo establecido en la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y en el Decreto Foral 31/2010, de 16 de noviembre, por el que se



Baliozkotze Kod.: 69XF59ZGZSEFYMSY3LDMEKQ23
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 12

Dekretuan xedatutakoarekin bat garatuko da. Lehendakaria izango da aktuazio horietatik eratorritako ekintzak erabakitzeko ahalmenduna.

Martxoaren 8ko 2/2008 ZFAOeko 137. artikuluak xedatutakoarekin bat, erregelamenduan finkatutako suposamenduetan zergen ikuskapenak luzatzen dituen agiri publikoak aktak dira, hori guztia konprobatze- eta ikertze- ekintzen emaitza jasotzeko helburuarekin. Akta horietan, halaber, zerga-obligazioa duenaren zergaegoera kontuan hartuta egoki iritzitako erregularizazioa proposatuko da, edo hura zuzena dela adieraziko da. Mankomunitateak burututako ikuskapen-aktuazioen emaitza, horretarako onartuko diren akta-ereduen bitartez jasoko da dokumentuan.

**17. Artikulua. Arau-hausteak eta zigorrak**

Zerga-arauhausteak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauan xedatutakoarekin bat kalifikatu eta erregulatuko dira.

Burutzen diren zerga-arauhausteei aplikatu beharreko zigorrak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga urraketen eta zigorren araubidea garatzeko Erregelamendua onartzen duen irailaren 26ko 42/2006 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat garatuko da. Lehendakaria izango da aktuazio horietatik eratorritako ekintzak erabakitzeko ahalmenduna.

**AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau, eta bere Eraskinak, Gobernu Juntak onartu zuen behin betiko 2024ko xxxren xxan eta 2024ko xxxren xxean sartuko da indarrean, aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean aplikatuz joango delarik.

aprueba el Reglamento de Inspección Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Será competente para dictar los actos resultantes de dichas actuaciones el Presidente.

Conforme al artículo 137 de la NFGT 2/2005, de 8 de marzo, las actas son los documentos públicos que extiende la inspección de los tributos en los supuestos reglamentariamente establecidos con el fin de recoger el resultado de las actuaciones inspectoras de comprobación e investigación, proponiendo la regularización que estime procedente de la situación tributaria del obligado tributario o declarando correcta la misma. El resultado de las actuaciones inspectoras llevadas a cabo por la Mancomunidad se documentarán en los modelos de actas que se aprobarán al efecto.

**Articulo 17. Infracciones y sanciones**

Las infracciones tributarias se calificarán y se regularán de conformidad con lo establecido en la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Las sanciones a aplicar a las infracciones tributarias que se cometan se regularán de conformidad con lo establecido en Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en el Decreto Foral 42/2006, de 26 de setiembre, por el que se aprueba el Reglamento del régimen de infracciones y sanciones tributarias del Territorio Histórico de Gipuzkoa. El Presidente será competente para dictar los actos derivados de dichas actuaciones.

**DISPOSICION FINAL**

La presente Ordenanza, con sus Anexos, fue aprobada definitivamente por la Junta de Gobierno en sesión celebrada el día xx de xxx de 2024 y entrará en vigor el día xx de xxx de 2024, continuando aplicándose en tanto no se acuerde su modificación o derogación.



Baliozkotze Kod.: 69XF59ZGZSEFYMSY3LDMEKQ23
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 12

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Esp: 123/2024

**ZERGAK ETA UDAL ZUZENBIDE PUBLIKOAREN BESTALAKO SARRERAK KUDEATZEKO, BILTZEKO ETA IKUSKATZEKO ORDENANTZA OROKORRA**

**ORDENANZA GENERAL DE GESTIÓN RECAUDACIÓN E INSPECCIÓN DE LOS TRIBUTOS Y OTROS INGRESOS DE DERECHO PÚBLICO LOCALES**

## I ERASKINA

1.1 Orokorrean, aldiroko zerga guztiak ordaintzeko epeak honako hauek izango dira:

## ANEXO I

1.1 Con carácter general se establece que los periodos para pagar los diferentes tributos de carácter periódico sean los siguientes:

**Enpresa Ekintzetarako Zentroko erabilera tasa /**
**Tasa por utilización del Centro de Iniciativas Empresariales**

| Urtea/Año | 2024 | | Fakturazioa/ Facturación | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Hilabetea / Mes | Epea-zerbitzua / Período servicio | | Fakturazioa / Facturación | Helbideratu gabeak / Sin domiciliar | | Helbideratuak / Domiciliados |
| | | | | Kobro hasiera Inicio cobro | Kobro amaiera Fin cobro | Kargu data Fecha cargo |
| Urtarrila / Enero | 2024/01/01 | 2024/01/31 | 2024/01/31 | 2024/02/01 | 2024/03/31 | 2024/02/29 |
| Otsaila / Febrero | 2024/02/01 | 2024/02/29 | 2024/02/29 | 2024/03/01 | 2024/04/30 | 2024/03/31 |
| Martxoa / Marzo | 2024/03/01 | 2024/03/31 | 2024/03/31 | 2024/04/01 | 2024/05/31 | 2024/04/30 |
| Apirila / Abril | 2024/04/01 | 2024/04/30 | 2024/04/30 | 2024/05/01 | 2024/06/30 | 2024/05/31 |
| Maiatza / Mayo | 2024/05/01 | 2024/05/31 | 2024/05/31 | 2024/06/01 | 2024/07/31 | 2024/06/30 |
| Ekaina / Junio | 2024/06/01 | 2024/06/30 | 2024/06/30 | 2024/07/01 | 2024/08/31 | 2024/07/31 |
| Uztaila / Julio | 2024/07/01 | 2024/07/31 | 2024/07/31 | 2024/08/01 | 2024/09/30 | 2024/08/31 |
| Abuztua / Agosto | 2024/08/01 | 2024/08/31 | 2024/08/31 | 2024/09/01 | 2024/10/31 | 2024/09/30 |
| Iraila / Septiembre | 2024/09/01 | 2024/09/30 | 2024/09/30 | 2024/10/01 | 2024/11/30 | 2024/10/31 |
| Urria / Octubre | 2024/10/01 | 2024/10/31 | 2024/10/31 | 2024/11/01 | 2024/12/31 | 2024/11/30 |
| Azaroa / Noviembre | 2024/11/01 | 2024/11/30 | 2024/11/30 | 2024/12/01 | 2025/01/31 | 2024/12/31 |
| Abendua/Diciembre | 2024/12/01 | 2024/12/31 | 2024/12/31 | 2025/01/01 | 2025/02/28 | 2025/01/31 |

1.2 Aparteko gorabeherarik izanez gero, Lehendakariak borondatezko epealdian ordaintzeko epea luza dezake.

1.2 Por circunstancias extraordinarias la Presidencia podrá ampliar el plazo de pago en periodo voluntario.



Baliozkotze Kod.: 69XF59ZGZSEFYMSY3LDMEKQ23
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 12

## II ERASKINA / ANEXO II

2.1 Atzerapen edo zatikatze kasuetan, emango den gehieneko epea, eta ekarri beharreko berme eta aurrerakinak, honako hauek dira:

2.1 En caso de aplazamiento o fraccionamiento, el plazo máximo a conceder así como las garantías y anticipos a aportar, son los siguientes:

| **ZENBATEKOA** IMPORTE | **BERMEA** GARANTIA | **GEHIENEKO EPEA** PLAZO MAXIMO | | **AURRERAKINA** ANTICIPO |
|---|---|---|---|---|
| | | **ZATIKATZEKO** / FRACCIONAMIENTO | **ATZERATZEKO** / APLAZAMIENTO | |
| **150 – 500,00 €** | **Ez** / No | **2 hilabete** / 2 meses | **2 hilabete** / 2 meses | **Zenbatekoaren % 20** % del importe |
| **500,01 – 1.200,00 €** | **Ez** / No | **4 hilabete** / 4 meses | **2 hilabete** / 2 meses | **Zenbatekoaren % 20** % del importe |
| **1.200,01 – 3.000,00 €** | **Ez** / No | **6 hilabete** / 6 meses | --------- | **Zenbatekoaren % 20** % del importe |
| **3.000,01 – 6.000,00 €** | **Bai /** SI | **12 hilabete** / 12 meses | --------- | **Zenbatekoaren % 20** % del importe |
| **≥ 6.000,01 €** | **Bai /** SI | **18 hilabete** / 18 meses | --------- | **Zenbatekoaren % 20** % del importe |

2.2 Ez da atzerapenik / zatikatzerik onartuko 150 € baino gutxiagoko kopuruetan.

2.2 No se concederán aplazamientos / fraccionamientos para cantidades inferiores a 150 €.

2.3 Ez da atzeratzerik onartuko 1.200,00 €-tik gorako kopuruetan.

2.3 No se concederán aplazamientos para cantidades superiores a 1.200,00 €.

2.4 Hondamendi, alama edo alerta-egoera, gertakari publiko larri edo arrisku larrien kasuan, Lehendakaritzak luzatu ahal izango ditu emandako atzeratzeak edo zatikapenak ordaintzeko epeak.

2.4 En caso de catástrofe, estado de alarma o alerta, hechos públicos graves o riesgos graves, la Presidencia podrá ampliar los plazos de pago de los aplazamientos o fraccionamientos concedidos.

Zergak eta udal zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko, biltzeko eta ikuskatzeko ordenantza orokorra, eta haren Eraskinak, 2024ko xxxren xxan onartu ziren behin betiko.

La Ordenanza general de gestión, recaudación e inspección de los tributos y otros ingresos de derecho público locales y sus Anexos quedaron aprobados definitivamente el xx de xx de 2024.



Baliozkotze Kod.: 69XF59ZGZSEFYMSY3LDMEKQ23
Egiaztapena: https://debagoiena.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 12